

# Nolakoa zen zure umetako eskola?

Hainbat pertsonaia ezagunek beren haurtzaroko oroitzenak astindu eta eskolan hasi zireneko hainbat pasadizo kontatu dizkigute



...▼

## Mikel Garmendia

Aktorea

«Ordiziako Karidadeko mojetan hasi nintzen; oso gustura joaten nintzen bertara. Oroitzapen politak ditut. Lagunak egiteko erraztasun handia nuen, eta niretzat urte zoragarririk izan ziren mojen artean igarotako haiek. Lehen irakasle Sor Castora moja izan nuen. Oso zahartua orain gutxi hil da. Oroitzapen politak ditut bereziki. Mojak utzi eta ondoren fraideetan hasi nintzen».

...▼

## Jose Luis Alvarez Eparantza 'Txillardegí'

Idazlea

«Oroitzen nahiko txarrak ditu nire lehen hezkuntzak. Donostiako Antigua auzoko Lurdes eskolan ikasi nuen, eliza ondoan. Mintegi ahizpak ziren bertako maistrak. Bi irakasle baino ez ziren eskolan. Zazpi urterekin hasi nintzen eskolan. Espainiako Gerra garaia zen, garai gogorra. Eskolan espainolez baino ez genuen egiten, nahiz eta Errepublikara garaitu libururen batek euskarazko testuren bat izan. Bi urte geroago, Aldapetako marianistetara joan nintzen. Hango giroa faxista eta espainol hutsa zen. Ez dut oso oroitzen goxorik».

...▼

## Andolin Eguzkitza

Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria

«Norcha Azkorra izeneko maistrarekin hasi nintzen ikasten eskola pribatu batean. Berau sekularra zen, baina eskolan kristautasunak pisu handia zuen. Norcha Azkorra maistrarekin gazteleraz ikasi nuen. Eskolara nahiko gustura joaten nintzen; ez dut izan trauma berezirik. Gogoratzen dut Puri izeneko maistra ere izan nuela, eta hark bai ematen zidala beldurra! Oraindik gogoan dut hizkia nola erabili ikasteko arbelera irten beharra izan nuela».

...▼

## Piarres Xarriton

Euskaltzain osoa

«Ez dut oroitzen handirik sei urte bete nituen arte bederen. Andere Juliane irakasle nuela oroitzen naiz: berau ez zen euskalduna. Frantziako iparraldetik etorria zela uste dut. Hazparneko Parrokiako eskolan egin nituen lehen ikasketak, baina sei urte behetik, ez dut oroitzen. Sei urtetik aitzin hasi nintzen euskaraz irakurtzen eta idazten Hazparnen. Orduan, Inazio Lazkanotegi izan nuela irakasle oroitzen dut».



...▼

## Txaro Arteaga

Emakundeko zuzendaria

«Donostiako Teresarretan egin nituen nire lehen ikasketak. Uniforme beltza janzten genuela oso gogoan dut. Lepoko zuriarekin. Eskolara oso kontent joaten nintzela ere gogoan dut: arkatza eramateko zorroa begien aurrean dut. Geroxeago uniforme berdea jantzi genuen, koadroekin. Oso modernoak ziren garai hartako mojak. Oroitzapen politak ditut».

...▼ Goitik behera, ezkerretik eskuinera: Txaro Arteaga, Mikel Garmendia, Piarres Xarriton eta Andolin Eguzkitza, haurrak zirenean.



**GROS**

**ZUBIRI-MANTEO BHI**

**AUZOA**

BIGARREN HEZIKETAKO INSTITUTUA: 12 URTETATIK 18 URTETARA

ZURE AUZOKO HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ESKAINTZA ZABALA ETA KALITATEKOA

LAN MUNDURA << INSTITUTUTIK >> UNIBERTSITATERA

**DBH: B/D EREDUAK**

- Zeregin ikasketen ikasgela (ZII)
- Eleaniztasun programa
- Orientabide zerbitzua
- Jangela eta garraioa

**MATRIKULA EPEA**

Otsailaren 7tik 18ra (biak barne)

**BATXILERGOAK: A/D EREDUAK**

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natur eta Osasun Zientziak

**LANBIDE HEZIKETA: A/D EREDUAK**

- Administrazio kudeaketa
- Administrazio eta finantzaketa
- Merkataritza
- Merkataritza eta marketina
- Sistema informatikoen administratza
- Turismo informazioa eta merkaturatzea

**IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK**

- Irratia
- Barnetegiak
- Praktika enpresetan
- Langai (Euskal enplegu zerbitzuen agentzia)
- Lan-orientabidea
- Tailerrak eta laborategiak
- Antzerkia
- Nazio arteko trukaketak
- Euskal dantzak eta dantza modernoa
- Kirolak
- Informatikako gelak
- Internet

HELBIDEAK: Rodi zeharbidea, 9 • 20013 DONOSTIA • Tel.: 943 32 60 88 • Faxa: 943 29 18 13 (DBH) — Jose Miguel Barandiaran, 10-12 • 20013 DONOSTIA  
Tel.: 943 28 15 23 • Faxa: 943 28 24 77 (Batxilergoak eta Zikloak) • Web gunea: www.zubirimanteo.hezitek.net • e-mail: bhi@zubirimanteo.hezitek.net